

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSEO ETA BILDUMAK

2022ko ESTATISTIKA-TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSEO ETA BILDUMAK

2022ko ESTATISTIKA-TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitalpena:	1.a, 2025eko azaroa
©	Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Internet:	www.euskadi.eus/argitalpenak
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco C/ Donostia-San Sebastian 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	SIADeco S.COOP.L
Koordinazioa:	Ainhoa Bernabe Aranberri - Museoen Zentroa
Itzulpena:	Bitez, S.L.
Datuak eta Grafikoak:	Teknei, S.L.
Diseinua eta Maketazioa:	Composiciones Rali, S.A.
ISSN:	2952-5942

AURKIBIDEA

Irudien aurkibidea	6
Taulen aurkibidea	8
Aurkezpena	9
Metodologia	10
1. Euskadiko museo-eskaintza: oinarrizko elementuak	12
Euskadiko museo eta bildumen kokapena	12
Museo eta bildumen tipologia	13
Titulartasuna eta figura juridikoa	15
Kudeaketa mota	18
Eratutako urtearen arabera antzinatea	20
Lagun Elkarrekin eta Patronatuak	21
2. Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamenduak	24
Zerbitzuak eta ekipamenduak	24
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	25
3. Sarrera	28
Jendeari irekitzeko modalitatea eta sarrera mota	28
Sarreraren ezaugarri ekonomikoak	30
4. Museoen jarduerak	35
Museo eta bildumek izandako bisitariak	35
Erakusketak eta beste jarduerak	41
Argitalpenak	44
5. Museoetako langileak	46
Museo eta bildumek atxikitako langileak eta horien lan-harremana	46
Langileen lanbide-kategoria	49
Langileen banaketa generoaren arabera	51
Lanaldi mota	53
6. Datu ekonomikoak	55
7. Museo funtsak	57
2022ko adierazle nagusiak	59
Eranskinak	61
2022ko estatistikan parte hartu duten museoak eta bildumak	61

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia.	Museoen eta bildumen banaketa udalerriaren arabera (balio absolutuak). 2022	13
2. irudia.	Museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	13
3. irudia.	Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	14
4. irudia.	Museoak tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak). 2022	15
5. irudia.	Museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022	16
6. irudia.	Titulartasun publikoko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2022 . . .	16
7. irudia.	Titulartasun pribatuko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2022 . . .	17
8. irudia.	Arabako museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022	17
9. irudia.	Bizkaiko museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022	18
10. irudia.	Gipuzkoako museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022	18
11. irudia.	Museoen kudeaketa modua (balio absolutuak eta %). 2022	19
12. irudia.	Museo eta bilduma publikoen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022	19
13. irudia.	Museo eta bilduma pribatuen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022	20
14. irudia.	Museo eta bildumen antzinatasuna (sortze- eta irekiera-urtea) (balio absolutuak eta %). 2022 . . .	21
15. irudia.	Lagun Elkartea duten edo ez duten museoak (balio absolutuak eta %). 2022	21
16. irudia.	Lagunen Elkartea duten museoak tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	22
17. irudia.	Lagunen Elkartea duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022 . . .	22
18. irudia.	Patronatua duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	23
19. irudia.	Ondorengo zerbitzuak dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak eta %). 2022	24
20. irudia.	Ondorengo ekipamenduak dituzten museo eta bilduma (balio absolutuak eta %). 2022	25
21. irudia.	Web orriaren ezaugarriak (balio absolutuak eta %). 2022	26
22. irudia.	Web orriak ematen dituen zerbitzuak (balio absolutuak eta %). 2022	27
23. irudia.	Museoak eta bildumak jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2022	28
24. irudia.	Museoak eta bildumak urtean irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	29
25. irudia.	Museoetan eta bildumetan sartzeko modua (balio absolutuak eta %). 2022	29
26. irudia.	Museoak eta bildumak ikusteko alde zaurretiko eskara behar den edo ez (balio absolutuak eta %). 2022	30
27. irudia.	Museo eta bildumen sarrera mota (balio absolutuak eta %). 2022	30
28. irudia.	Museoen eta bildumen sarrera mota, titulartasunaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022 . . .	31
29. irudia.	Doako tarifa bakarrik duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	31
30. irudia.	Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	32
31. irudia.	Sarrera ordaindua duten museoen eta bildumen tarifa mota (balio absolutuak eta %). 2022	32
32. irudia.	Museoak eta bildumak, tarifa murriztuak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2022	33
33. irudia.	Museoak eta bildumak, doako sarrerak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2022	34
34. irudia.	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	35
35. irudia.	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua udalerriaren arabera (balio absolutuak). 2022	36
36. irudia.	Bisitarien banaketa tarifa motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022	38
37. irudia.	Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2022	39

38. irudia.	Bisitari atzerritarren banaketa museoa kokatzen den lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	39
39. irudia.	Atzerriko bisitari kopurua museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	40
40. irudia.	Museo eta bildumek taldeen bisitak eskaini dituzten edo ez (balio absolutuak eta %). 2022.	41
41. irudia.	Aldi baterako erakusketak eskaini dituzten museo eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	42
42. irudia.	Hezkuntza jarduerak eta bestelako jarduerak antolatzen dituzten museo eta bildumak eta zein talderi eskaini zaizkion (balio absolutuak eta %). 2022.	43
43. irudia.	Museo eta bildumak, 2022an argitalpenen bat argitaratu dutenaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	44
44. irudia.	Museo eta bildumek argitaratutako argitalpen mota (balio absolutuak eta %). 2022.	44
45. irudia.	Museo eta bildumek argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (balio absolutuak eta %). 2022.	45
46. irudia.	Museo eta bildumen argitalpenak hizkuntzaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	45
47. irudia.	Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	46
48. irudia.	Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (ordainduak eta boluntarioak) (balio absolutuak). 2022.	47
49. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, horien lan-harremanaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	48
50. irudia.	Museo eta bildumak soldatapeko langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	48
51. irudia.	Soldatapeko langile gehien dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak). 2022.	49
52. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lan-motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	50
53. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lanbide-kategoriaren arabera (balio absolutuak eta lanbide-kategoriaren araberrako %). 2022.	50
54. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, generoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	52
55. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2022.	52
56. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, lanaldi motaren arabera (%). 2022.	53
57. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lanaldiaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2022.	54
58. irudia.	Museo eta bildumen finantzazio-iturriak (balio absolutuak eta %). 2022.	55
59. irudia.	Finantzazio publikoa duten museo eta bildumen erakunde finantzatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022.	56
60. irudia.	Museo eta bildumen diru-sarrera propioak (balio absolutuak eta %). 2022.	56
61. irudia.	Museo-funtsak, museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022.	57

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %) 2022	37
2. taula	Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutua eta %) 2022	38
3. taula	Museo eta bildumetako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala) 2022	51

AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren baitan dagoen Museoen Zentroak, bi urtez behin, Euskadiko Museo eta Bildumen estatistika-ikerketa egiten du. Txostenaren xede nagusiak dira: datuak eguneratzea, herritarrei Euskadiko museoen sektoreari buruzko alderdi nagusiak aurkeztea, eta kultur erakunde eta kudeatzaile publikoei zein pribatuei beharrezko informazioa eskaintzea.

Dokumentu honetan 2022ko emaitza nagusiak agertzen dira, eta **EMSIMEn, Euskadiko museoen kudeaketarako sistema informatikoan** dauden hiru lurralde historikoetako 64 museo eta bildumak hartu dute parte.

Emaitza horiek honako dimentsio hauei buruzko datuak ekartzen dituzte:

- Museo-sarearen ezaugarri orokorrak
- Azpiegituren ezaugarriak
- Eskaintzen dituzten zerbitzuak eta erabilgarri dagoen ekipamendua
- Sarbidea
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea
- Museo-erakundeetako langileei buruzko datuak
- Datu ekonomikoak
- Museo-funtsen informazioa

Azterketa honek Euskadiko museo-sektorearen gaur egungo egoeraren irudi orokorra ematen du, eta aukera ematen du museo-azpiegituren ezaugarriak ezagutu eta horien irakurketa egiteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko museoen eta bildumen arduradunei eta talde teknikoei, txosten hau egiteko Informazioa partekatzeagatik.

METODOLOGIA

PARTE-HARTZEA

Estatistika honetan EMSIMEN dauden hiru lurralde historikoetan dauden 64 museoek hartu dute parte; hau da, erantzun-maila %100koa izan da. 1. Eranskinean agertzen da 2022an parte hartu duten museo eta bildumen zerrenda.

Aipatzekoa da, galdetegia bidali zaiela Euskadiko Museoen Erregistroan inskribatuta dauden entitateei eta foru aldundietako museoari. Azterketan ez dira aintzat hartu interpretazio zentroak edo bestelako erakusketa guneak, ezta ere erregistratu gabe dauden museo publiko edo pribatuak.

GARATU DIREN EDUKIAK

Txosteneko kapituluak garatzeko erabilitako galdetegian jasotako aldagaiak honako hauek dira:

- **Erakundeari buruzko datu orokorrak:** identifikazio-datuak eta izaera, tipologia, titulartasuna eta kudeaketa, sorrera eta irekiera, etab.
- **Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua:** eraikinaren Informazioa, zerbitzuak eta informatizazio maila.
- **Sarbidea:** jendaurreko irekitze egunak eta orduak, sarrera motak eta tarifak.
- **Erakundearen jarduera:** bisitariak eta egindako erakusketak, argitalpenak eta bestelako jarduerak.
- **Langileak:** langile kopuru orokorra, generoa, lan mota, lan-harremana eta maila.
- **Datu ekonomikoak:** batik bat, finantzaketa iturriak.
- **Museoetako funtsak**

Aipatutako azterketa-aldagai horietaz gain, aintzat hartu diren klasifikazio-aldagaiak, batez ere, museoaren tipologia eta lurralde historikoa izan dira. Esan behar da jatorrizko galdetegian ez direla bisitariak generoaren arabera aztertzen; langileak, aldiz, bai. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, orohar, genero-ikuspegia txertatzen du bere plangintza, deialdi, dirulaguntza, batzorde, kontratu eta bestelako agirietan, eta txosten honetan hizkuntza inklusiboa erabili da. Hori dela-eta, EMSIMEn jarritako galdetegian bisitarien generoari buruzko aldagaia txertatzea erabaki dugu.

Museo eta bildumen tipologiari dagokionez, UNESCOk ezartzen duen klasifikazio orokorra erabili da oinarri bezala:

- **Arte Ederrak:** antzintasunetik XIX. mendera arteko artelanak jasotzen ditu: arkitektura, eskultura, pintura, marrazkia, grabatuak, etab.
- **Arte Garaikidea:** batez ere XX. eta XXI. mendeetan egindako artelanak hartzen ditu, argazkigintza eta zinea barne.
- **Museo-Etxea:** pertsonaia baten etxean kokatutako museoa.
- **Arkeologikoa:** indusketa, prospekzio eta arkeologia-aztarnategietatik datozen objektuak jasotzen ditu, eta besteak beste espezialitate hauek hartzen ditu kontuan: numismatika, gliptika, epigrafia, etab.

- **Tokikoa:** jatorrizko kokapenean dagoen ondare historikoa, adibidez, aztarnategi arkeologikoak, monumentuak edo tokiko industria-ondarea erakusten duten erakundeak (tartean interpretazio-zentro arkeologikoak, betiere bildumak jatorrizko piezak baditu).
- **Historikoa:** gertakari, aro historiko edo pertsonaia bati buruzko objektuak biltzen ditu.
- **Natur Zientziak eta Historia Unibertsala:** zientzia hauekin zerikusia duten objektuak ditu: biologia, botanika, geologia, zoologia, antropologia fisikoa, paleontologia, mineralogia, eta ekologia, beste batzuen artean.
- **Zientzia eta Teknologia:** zientzia eta teknikaren historiaren eboluzioaren objektu esanguratsuak jasotzen ditu.
- **Etnografia eta Antropologia:** industria-aurreko garaiko kulturak edo kultura-elementuak biltzen ditu, esate baterako, folklorea, arteak, tradizioak eta ohiturak.
- **Espezializatua:** kultura-ondarearen beste maila baten jaso ezin diren gaietan sakontzen du.
- **Orokorra:** aurreko kategorietako batekin baino gehiagorekin identifika daitekeen museoa edo bilduma.
- **Besteak:** aurreko kategorietan sartu ezin diren museo edo bildumak.

EMANDAKO INFORMAZIOA

Emandako informazioa osatua dago, 2022ko museo en eroldan zeuden 64 museo eta bildumek erantzun dute. Gainera, kasurik gehienetan, galde-sortako item guztiei erantzun zaie. Grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria, hau da, galdera bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA

Metodologia	Norberak betetako inkesta
Informazioa eskuratzeko tresna	Galdera itxiez osatutako galdetegia
Lortutako azken lagina	64 museo eta bilduma
Informazioa noiz bildu zen	2023ko urtarrilaren 7tik martxoaren 15era arte
Ikertutako urtea	2022
Lurralde eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen oinarritzko ezaugarriei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da: kokalekua, tipologia, titulartasuna, kudeaketa-modalitatea, antzintasuna eta patronaturik edo lagunen elkarterik ote duen.

EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA


Euskadiko museo-erakundeen ia erdia Gipuzkoako lurralde historikoan aurkitzen da; lurralde horretan aurki dezakegu eskaintzaren %45,3. Bigarren lekuan Bizkaia dago, museoek %39,1arekin, eta azkenik, Araban azpiegitura horien %15,6a biltzen da.

Hala ere, esanguratsua da nola banatzen diren museo-erakundeak hiru lurraldeetan. Gipuzkoan, lurralde osoan zehar oso sakabanatuta daude, eta hiriburuan museo-erakunde kontzentrazio txikiena duen lurraldea da, hau da, 29 museo daude 20 udalerritan banatuta, eta horietatik 6 bakarrik hiriburuan. Aldiz, Araban, 10 museotatik 7 hiriburuan aurkitzen dira. Bizkaia kasuan, 25 museo eta bildumak 16 udalerritan daude banatuta eta 9 hiriburuan daude.

Alegia, portzentajeei erreparatuta, Gipuzkoako hiriburuak lurraldeko museoek %20,7 jasotzen du; Arabakoak, berriz, %70. Bilbo bien artean kokatzen da, Bizkaiko museoek %36arekin.


64 entitateetatik 63 museoak dira eta bilduma bakarra dago; zehazki, Orkonera-Lutxana Bilduma: Euskadiko Industria Ondarearen Zentroa, Bizkaian kokatua, eta 2022an jendaurrera irekita.

1. irudia. Museoen eta bildumen banaketa udalerriaren arabera (balio absolutuak). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

2. irudia. Museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

MUSEO ETA BILDUMEN TIPOLOGIA

Euskadiko museo-eskaintzan nabarmentzekoak dira kultur ondarearen arlo zehatz batzuetan espezializatutako museoak. Guztira 14 dira, hau da, bostetik bat museo espezializatua da. Aipatzekoak dira zientziarekin eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak, zientziaren eta teknikaren adierazgarri diren ob-

jektuak biltzen dituztenak: 9 dira (%14,1). Aldiz, museo-etxeak (1) eta arte garaikideko museoak (2) ez daude hain zabalduta Euskadiko museo-sarean.

3. irudia. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.


Museo eta bilduma bakoitzaren tipologia lurralde historikoen arabera aztertuta, Gipuzkoan izaera espezializatuko azpiegiturak nagusitzen dira (%27,6) eta zientzia eta teknologikoak (%17,2). Aldiz, ez dago arte ederretako museorik, ez arte garaikidekorik ere.

Bizkaiari dagokionez, museo historikoak nabarmentzen dira (%20,0), eta jarraian datoz zientzia eta teknologikoak (%16) eta espezializatutakoak (%16,0).

Nabarmentzekoa da zientzia eta teknologiko museoak, orokorrean, kokatuta dauden udalerriko edo eskualdeko egungo edo lehengo jarduera ekonomiko nagusiari lotuta daudela (burdingintza, meatzari-tza, makina-erreminta, armagintza, etab.).

Araban ez da museo tipologiari nabarmentzen: arte ederretako 2 museo daude, eta beste hainbeste museo arkeologiko eta espezializatu. Eta ondorengo kategoria bakoitzeko museo bat dago: etnografiakoa, arte garaikidekoa, natur zientziak eta historia unibertsalekoa eta bestelakoak.

4. irudia. Museoak tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Euskadiko 64 museo-erakundeetatik 38 titulartasun publikokoak dira (%59,4), eta 23 titulartasun pribatukoak (%35,9). Gainerako 3 entitateak (%4,7) titulartasun mistoa dute, hau da, organismo publiko eta pribatuen artean osatutako fundazio edo partzuergoak dira.

5. irudia. Museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Toki-administrazioei dagokie titulartasun publikoaren %81,6: 38 entitate publikoetatik 16 aldundienak dira (%42,1), 12 udalenak (%31,6) eta 3 bestelako toki-erakundeenak (%7,9).

3 kasutan, titulartasuna Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio, beste 3 kasutan fundazio publikoei eta batean Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU).


6. irudia. Titulartasun publikoko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 38 museo eta bilduma.

Titulartasun pribatuko 23 museo eta bildumen nortasun juridikoari dagokionez, fundazioa nabarmentzen da 11 entitaterekin, entitate pribatuen ia erdia (%47,8). Elkarteenak diren museoak ere badaude (6 entitate), baita elizarenak (3 entitate) edo sozietateren batenak (2 entitate). Baita pertsona bakarreko bat ere.

7. irudia. Titulartasun pribatuko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 23 museo eta bilduma.

Lurralde historikoari begiratzen badiogu, proportzioan Araba da erakunde publiko gehien dituen lurraldea: 10 museotik 8 publikoak dira (%80,0), horietatik 7 Foru Aldundiarenak. Gipuzkoan %58,6 titulartasun publikokoak dira, eta nabarmentzekoa da, lurraldeko museoek %31,0k udal- titulartasuna duela.


Bizkaian, erdia gutxi gorabehera titulartasun publikokoa da (%52,0) eta beste erdia titulartasun pribatukoa (%44,0).

8. irudia. Arabako museoek titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 10 museo eta bilduma.

9. irudia. Bizkaiko museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 25 museo eta bilduma.

10. irudia. Gipuzkoako museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 29 museo eta bilduma.

KUDEAKETA MOTA

Museo eta bilduma gehienak titulartasun publikokoak badira ere (38, %59,4), kudeaketa mota aztertzean, ikusten da erdia baino gutxiago direla erakunde publikoek kudeatzen dituztenak (29, %45,3).

Aldiz, 29 entitatek kudeaketa pribatua dute (%45,3) eta 6k kudeaketa mistoa (%9,4).


11. irudia. Museoen kudeaketa modua (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Titulartasun publikoa duten 38 museoetatik 28 entitate publiko batek kudeatzen ditu (%73,7); horietatik, 12 aldundiek kudeatzen dituzte eta 7 udalek. Titulartasun publikoko 8 museo, entitate pribatu batek kudeatzen ditu eta 2 entitate misto batek.


12. irudia. Museo eta bilduma publikoen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 38 museo eta bilduma.

Titulartasun pribatuko 23 museotatik, 9 fundazioek kudeatzen dituzte (%39,1), non erakunde publikoek edo/eta pribatuak parte har dezaketen. Gutxiago dira elkarteak, sozietateak, elizako erakundeak edo bestelako erakundeak kudeatzen dituzten titulartasun pribatuko entitateak.

13. irudia. Museo eta bilduma pribatuen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 23 museo eta bilduma.

ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO ANTZINATASUNA

Museo eta bildumen ia erdia (%48,4) XX. mendeko bigarren erdian sortu zen, eta %35,9 2000. urtearen ondoren. Zehazki, %23,4 2001 eta 2010 artean, eta %12,5 2010etik aurrera. 1950 baino lehen sortutako museoak %15,6 dira.

Jendeari irekitzen zaion urtea aintzat hartuta, aldiz, XXI. mendean ireki zen museoaren eta bildumen %46,9. Batez beste, 29,3 urte daramatzate jendeari irekita.

14. irudia. Museo eta bildumen antzintasuna (sortze- eta irekiera-urtea) (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

LAGUN ELKARTEAK ETA PATRONATUAK

Aztertutako museo-eskaintza guztiaren %29,7a, hau da, 19 museok dute Lagunen Elkartearen babesle-tza formula. Gehienak titulartasun publikokoak dira (10), 7 pribatuak eta 2 titulartasun mistokoak.


15. irudia. Lagun Elkartea duten edo ez duten museoak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Museo mota kontuan hartuta, Lagunen Elkartea dutenen artean, zientzia eta teknologia museoak (5) eta espezializatuak (4) nabarmentzen dira.


16. irudia. Lagunen Elkartea duten museoak tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 19 museo eta bilduma.

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoan eta Bizkaian 8na museok dute Lagunen Elkartea, eta Araban hiruk. Dena den, lurralde bakoitzeko museo kopuruarekin alderatzen badugu, Bizkaiko museoek %32,0k Lagunen Elkartea du, Araban (%30,0) eta Gipuzkoan (%27,6) baino zertxobait gehiagok.


17. irudia. Lagunen Elkartea duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Patronatuari dagokionez, Euskadiko museoen mapan gehiago dira Patronaturik ez dutenak: 22 erakundek badute (%34,4), eta beste 42ek ez (%65,6). Lurralde historikoaren arabera aztertuta, Gipuzkoan 12 dira Patronatua duten museoak, Bizkaian 9 eta Araban bakarra. Lurralde bakoitzeko museo kopurua kontuan hartuta, Gipuzkoako museoen %41,4ak Patronatua du, Bizkaikoen %36,0ak eta Arabakoen %10,0ak.

18. irudia. Patronatua duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Kapitulu honetan museo eta bildumen eraikin, ekipamendu eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Aldi berean, museo-erakundeek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabiltzen dituzten ere azaltzen da.

ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Nabarmentzekoa da Euskadiko museo eta bildumek eskaintzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduen aniztasuna. Azpimarratzekoa da bisita gidatuak (%98,4) eta erakusketa iraunkorrari buruzko informazioa aretoan bertan (panelak,...) (%95,3) eskaintzen duten museoek kopurua, izan ere, aztertutako museo-erakunde ia guztiek eskaintzen dituzte zerbitzu horiek. Bestelako informazioa (liburuxkak, esku-orriak...) eskaintzen dutenen portzentajea ere oso altua da (%90,6).

Museo eta bildumen erdiak baino zertxobait gehiagok eskaintzen du informazio eskuragarria desgaitasunen bat duten pertsonentzako (%84,4) eta hirugarrenei espazioa alokatzeko aukera (%54,7), eta erdiak baino zertxobait gutxiagok gidak euskarri elektronikoetan (%45,3) eta ingurumen-kontrola (%40,6).

19. irudia. Ondorengo zerbitzuak dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Ekipamenduari dagokionez, ohikoenak aretoetan informazioa eskaintzea -panelak eta bestelako informazio euskarriak- (%92,2) eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarrera egokitua (%84,4) dira. Baina museoek gehienek jarduera didaktikoetarako espazioa (%75), denda/liburu-denda (%75) eta liburutegia (%64,1) ere badute. Presentzia txikieneko ekipamenduak argazki-laborategiak (%10,9) eta ekipamendu osagarriak -jaketxeak eta kafetegiak- (%18,8) dira.

20. irudia. Ondorengo ekipamenduak dituzten museo eta bilduma (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskadiko museo eta bildumetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek presentzia handia dute; denek web orria dute, batzuk beste web orri batean integratuta (%45,3), museoek atari batera lotuta (%46,9), edo museoek atari bat baino gehiagotara lotuta (%31,3).

21. irudia. Web orriaren ezaugarriak (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Web orriak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, guztiek bisitariarentzat oinarrizko Informazioa eskaintzen dute (%100), eta %80 inguruk eskaintzen ditu bisitariaren eta museoaren arteko komunikaziorako kanalak (helbide elektronikoa, etab.) eta hezkuntza-jarduerak.

Web orrien erdiak baino gehiagok bildumetarako sarbidea eskaintzen du (%59,4), eta erdiak gutxi gora-behera ikerketa zientifikorako informazioa (%50,0) eta online zerbitzuak (%45,3).

22. irudia. Web orriak ematen dituen zerbitzuak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma (erantzun anitza)


Kapitulu honetan aztertuko da zer irekiera-modalitate duten Euskadiko museoek; baita sarrera mota eta sartzeko aplikatzen diren tarifak ere.

JENDEARI IREKITZEKO MODALITATEA ETA SARRERA MOTA

2022an, Euskadiko museo eta bildumen %89,1 publikoari irekita egon da, eta aldiz %10,9 denboraldi baterako itxita (7 museo).

Publikoari irekita dauden museo ia guztiak urteko hilabete guztietan zabalik daude, nahiz eta asteko egunen batean itxi.


23. irudia. Museoak eta bildumak jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (balio absolutuak eta %).



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

2022an zabalik egon diren museo eta bildumen %73,7 300 egun baino gehiagotan egon dira zabalik; %17,5 251-300 egun artean, eta %7 200 egun edo gutxiagotan.


24. irudia. Museoak eta bildumak urtean irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 57 museo eta bilduma.

Aztertutako Euskadiko museo-espazioen %93,8k mugarik gabeko sarbidea eskaintzen dute beren instalazioetara, eta %6,3k sarbidea mugatua dute (4 museoek).


25. irudia. Museoetan eta bildumetan sartzeko modua (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Aldiz, museo eta bilduma kopuru garrantzitsu batera sartzeko, aurretiaz eskaria egin behar da, zehazki, %42,2an.

26. irudia. Museoak eta bildumak ikusteko aldeaz aurretiko eskara behar den edo ez (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Museo gehienetara sartzeko tarifa bat aplikatzen da, eta %29,7 baino ez da doan.


Titulartasun publikoko museoen artean nabarmen gehiago dira doako sarrera dutenak (%39,5) titulartasun pribatua dutenen artean baino (%17,4).

27. irudia. Museo eta bildumen sarrera mota (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.


28. irudia. Museoen eta bildumen sarrera mota, titulartasunaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Doako sarrera duten museo gehienak Araban (%42,1) eta Bizkaian (%42,1) kokatzen dira, eta %15,8 besterik ez Gipuzkoan.

29. irudia. Doako tarifa bakarrik duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 19 museo eta bilduma.

Ordainketa-tarifa duten 45 museo-erakundeek badute oinarrizko tarifa bat, non ez diren sartzen aldi baterako erakusketak, horiek tarifa espezifikoak baitituzte.

Honako museo eta bildumen erdiak baino zertxobait gutxiagok (%46,7) 2€-5€ arteko sarrera kobratzen dute eta %33,3ak 5€-10€ artean. %8,9k 10€ baino gehiago kobratzen du.


30. irudia. Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 45 museo eta bilduma.

Sarrera kobratzen duten 45 museo eta bildumetatik 43k tarifa murrizturen bat eskaintzen dute (%95,6), 38k doako sarrera eskaintzen diete talde jakin batzuei (%84,4), eta 26k pase bereziak eskaintzen dituzte (bonoak, paseak, txartelak...) (%57,8).


31. irudia. Sarrera ordaindua duten museo eta bildumen tarifa mota (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: sarrera kobratzen duten 45 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Tarifa murriztuen onuradun izan daitezkeen taldeei dagokienez, museo %80 inguruk tarifa murriztuak eskaintzen dizkiete taldeei eta ikasleei (%77,8); %66,7k adinekoei eta erdiak inguru haurrei.


32. irudia. Museoak eta bildumak, tarifa murriztuak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: sarrera kobratzen duten 45 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Sarrera kobratzen duten 45 museo eta bildumetatik 38k doako sarrera eskaintzen dizkiete talde jakinei, eta kasu honetan, onuradun nagusiak haurrak dira. Izan ere, museoek %75,6k haurrei doako sarrera eskaintzen diete, eta %66,7k beste talde batzuei.

33. irudia. Museoak eta bildumak, doako sarrerak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: sarrera kobratzen duten 45 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Azkenik, Euskadiko museo-sarean gutxien eskaintzen den tarifa mota pase bereziena da: sarrera kobratzen duten 45 museo eta bildumetatik 26k eskaintzen dute (%57,8). Pase berezi horiek, nagusiki, pase konbinatuak dira (museoa/hiria, museoa/museoa, museoa/turismoa...), (12 museo, %26,7), doako sarrerako paseak (12 museo, %26,7) eta urteko paseak (9 museo, %20,0).


Bestalde, tarifa osoa duten 45 museo-erakundeetatik 18k (%40,0) gutxienez astean behin doako sarrera eskaintzen dute.

Kapitulu honetan Euskadiko museo eta bildumen bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta era-kunde horiek sustatzen dituzten bestelako jarduerak aztertuko dira.

MUSEO ETA BILDUMEK IZANDAKO BISITARIAK

Eskuragarri dagoen Informazioa oinarri hartuta, 2022an guztira 2.951.350 lagunek bisitatu zituzten Eus-kadiko museo eta bildumak.

34. irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma

Bisitariak lurralde historikoaren arabera nola banatu diren aztertuta, esan Bizkaiak hartu dituela bisitari gehien, bisitarien %62,0; Gipuzkoak %30,7 eta Arabak %7,3.

Hala ere, aipagarria da Bizkaiak izan dituen 1.829.253 bisitarietatik 1.289.147k (%70,5) Guggenheim Museoa bisitatu dutela, eta 150.721ek Arte Ederretako Museoa (%8,2). Hau da, bisiten %78,7 bi mu-seotan bildu dira, eta nagusiki, eta alde handiarekin, Guggenheim Museoan.

Gipuzkoaren kasuan, nabarmendu behar da bisitarien %68,9 Donostian kontzentratzen dela (624.537 bisitari).

35. irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua udalerrriaren arabera (balio absolutuak). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Bisitariak museo-tipologiaren arabera aztertuz gero, bisitarien ehunekorik handiena arte garaikideko museotan pilatzen da; zehazki, bisitarien %46,1 (berriz ere Guggenheim Museoaren eraginez).

Jarraian datoz, baina alde handiarekin museo eta bilduma orokorrak (%15,4) eta espezializatuak (%11,2). Aldiz, bisitari-bolumenik txikiena duten museo-espazioak museo-etxeak dira.

1. taula Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %) 2022

Museoaren tipologia	Bisitari kopurua	%
Arkeologikoa	84.085	2,8
Arte Ederrak	231.748	7,9
Arte Garaikidea	1.359.236	46,1
Bestelakoak	73.167	2,5
Espezializatuak	331.094	11,2
Etnografia eta Antropologia	29.223	1,0
Historikoa	68.407	2,3
Museo-Etxea	1.505	0,1
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	20.555	0,7
Orokorra	455.066	15,4
Tokikoa	52.115	1,8
Zientzia eta Teknologia	245.149	8,3
GUZTIRA	2.951.350	100,0

Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Lurralde historiko bakoitzeko bisitari kopuruaren azterketa zehatzago batek honakoa erakusten du:

- **Araban**, hamar bisitaritik ia hiruk (%32,4) arte garaikideko museoa bisitatu dute, hau da, Artium- Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Museoa. Jarraian, bisitarien %21,9k Bibat Arkeologia Fournier de Naipes Museoa bisitatu du, eta %13,1ek Gasteizko Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa.
- **Bizkaian**, bisitarien %70,5ek Bilboko Guggenheim Museoan bisitatu du. Bigarren bisitatuena (bisiten %8,2) Bilboko Arte Ederren Museoa izan da, eta hirugarrena (bisiten %5,4), Athletic Clubeko Museoa.
- **Gipuzkoan**, Aquarium da museorik bisitatuena, bisiten %35,9rekin, eta jarraian, %19,7rekin Eureka! Zientzia Museoa. Hirugarren lekuan San Telmo Museoa dago, bisitarien %9,9arekin.


2. taula Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutua eta %) 2022

Museoaren tipologia	Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Arkeologikoa	8.743	4,0	17.389	1,0	57.953	6,4	84.085	2,8
Arte Garaikidea	70.089	32,4	1.289.147	70,5	—	0,0	1.359.236	46,1
Arte Ederrak	49.037	22,7	182.711	10,0	—	0,0	231.748	7,9
Museo-Etxea	—	0,0	—	0,0	1.505	0,2	1.505	0,1
Zientzia eta Teknologia	—	0,0	30.097	1,6	215.052	23,7	245.149	8,3
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	16.799	7,8	2.346	0,1	1.410	0,2	20.555	0,7
Tokikoa	—	0,0	46.811	2,6	5.304	0,6	52.115	1,8
Espezializatuak	18.549	8,6	176.381	9,6	136.164	15,0	331.094	11,2
Etnografia eta Antropologia	5.488	2,5	7.793	0,4	15.942	1,8	29.223	1,0
Orokorra	—	0,0	12.631	0,7	442.435	48,8	455.066	15,4
Historikoa	—	0,0	63.947	3,5	4.460	0,5	68.407	2,3
Bestelakoak	47.321	21,9	—	0,0	25.846	2,9	73.167	2,5
Guztira	216.026	100,0	1.829.253	100,0	906.071	100,0	2.951.350	100,0

Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Bestalde, bisitariak sarrera motaren arabera aztertuz gero, hiru tarifa motak hiru multzo nahikoa paretsuan banatzen dira: bisitarien %36,9k tarifa osoa ordaindu du, %35,3 doan sartu da eta %27,8k tarifa murriztua ordaindu du.


36. irudia. Bisitarien banaketa tarifa motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 62 museo eta bilduma.

Estatistika honetan parte hartu duten 64 museo eta bildumetarik 44k 2022an izandako bertako eta atzerriko bisitarien kopurua zehaztu dute: horietan, museoko bisitarien %55,0 bertakoak izan dira eta %45,0 atzerritarrak.

37. irudia. Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 44 museo eta bilduma.

Atzerriko bisitarien kopuruak lurralde historikoaren arabera aztertuz gero, kopururik handienak Bizkaia bisitatu du (%74,7). Gipuzkoa %24,7k bisitatu du eta Araba %0,6k.

Bestalde, Bizkaiko museo bat bisitatu duten pertsonen %50,3 atzerritarra da; Gipuzkoan %38,8 eta Araban %5,9.


38. irudia. Bisitari atzeritarren banaketa museoa kokatzen den lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 44 museo eta bilduma.

Museo-tipologiaren arabera, ikus daiteke arte garaikideko museoetan biltzen dela atzerriko bisitarien erdia baino gehiago (%54,9). Horien atzetik doaz, distantzia handira, museo orokorrak (%17,5) eta espezializatuak (%10,7).


39. irudia. Atzerriko bisitari kopurua museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 44 museo eta bilduma.

Azkenik, Euskadiko museo-sareko erakundeek %62,5k jaso dituzten bisitak.

40. irudia. Museo eta bildumek taldeen bisitak eskaini dituzten edo ez (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Ikerketan parte hartu duten hamar museo eta bildumatatik zortzik 2022an inauguratu ziren aldi baterako erakusketak izan dituzte. Hala ere, museo-erakunde bakoitzaren tipologiaren arabera diferentzia nabarmenak ikusten dira.

Arte garaikideko eta arte ederretako museoek, tokikoen, museo orokorren eta bestelako artean, aldi baterako erakusketak egitea erabat ohikoa da. Izaera historikoko museoek, espezializatuen eta zientzia eta teknologikoen kasuan, erakundeek %80 inguruk eskaintzen dituzte aldi baterako erakusketak. Natur zientzia eta historia unibertsaleko eta etnografia eta antropologiako museoek artean, horrelako erakusketak ez dira hain ohikoak (%66,7), ezta museo arkeologikoetan ere (%50).

41. irudia. Aldi baterako erakusketak eskaini dituzten museo eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Euskadiko museo eta bilduma gehienak (%95,3k) beren museo-jarduera osatzeko beste jarduera batzuk ere eskaintzen dituzte, eta jarduera osagarri horien artean hezkuntza-jarduerak nabarmentzen dira, 60 museo eta bildumek eskaintzen dituztenak (%93,8).

Hezkuntza-jarduera horiek haurrei (%92,2) eta familiei (%76,6) zuzentzen zaizkie nagusiki. Baina badira ere hezkuntza-jarduerak adinekoei (%60,9), desgaitasunen bat duten pertsoneri (%53,1), gutxiengo etniko pertsoneri (%26,6) eta bestelako taldeetakoiei (%42,2) eskaintzen dizkieten erakundeak.

Hezkuntza-jarduera hauez gain, Euskadiko museo eta bildumek bestelako jarduera kulturalak ere eskaintzen dituzte (%70,3), kurtsoak/tailerrak/seminarioak edota jardunaldiak (%65,6), hitzaldiak (%57,8), eta neurri txikiagoan, proiektzioak/ikus-entzunezkoak (%40,6) edota kontzertuak (%35,9).

42. irudia. Hezkuntza jarduerak eta bestelako jarduerak antolatzen dituzten museo eta bildumak eta zein talderi eskaini zaizkion (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma (erantzun anitza)

ARGITALPENAK

Aztertutako Euskadiko museo eta bildumen %81,3k dio 2022. urtean argitalpenen bat egin duela.


43. irudia. Museo eta bildumak, 2022an argitalpenen bat argitaratu dutenaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Dibulgazio-materialak dira Euskadiko museo eta bildumek argitaratutako eduki nagusiak (38 museo, zeozer argitaratu dutenen %73,1ek). Jarraian, baina nabarmen atzerago, aldizkako argitalpenak (%38,5), argitalpen didaktikoak (%36,5) eta gidak argitaratu dituztenak (%28,8). Eta azkenik, zientzia katalogoak (%13,5).


44. irudia. Museo eta bildumek argitaratutako argitalpen mota (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 52 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Papera da argitalpen hauek egiteko erabiltzen den euskarri nagusia (argitalpenen bat duten museoek %84,6k). Jarraian, webean erabilgarri dagoen euskarri elektronikoa erabili dutenak (%69,2) eta azkenik, euskarri elektronikoa (%40,4).

45. irudia. Museo eta bildumek argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 52 museo eta bilduma (erantzun anitza).

2022. urtean zehar zeozer argitaratu duten 52 museo eta bildumetatik, 43k zein hizkuntzatan argitaratu duten zehaztu dute. Eta horiek ia guztiek euskaraz (%97,7) eta gaztelaniaz (%93,0) argitaratu dute.

Erdiak baino gutxiagok ingelesez (%48,8) edota frantsesez (%44,2) ere argitaratu du. Eta %10ak baino gutxiagok alemanez edo beste hizkuntza batean.

46. irudia. Museo eta bildumen argitalpenak hizkuntzaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Kapitulu honetan Euskadiko museo-sarearen zerbitzura dauden langileei buruzko oinarrizko informazioa biltzen da. Horretarako lan-harremanarekin, lanbide-kategoriarekin, generoarekin edota lanaldi-motarekin lotutako hainbat adierazle aztertzen da.


MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

2022. urtean aztertutako 64 museo eta bildumetan 794 pertsonak egiten dute lan (ordainduta edo modu boluntarioan) museoarekin lotutako eginkizunetan. 2020an, 718 pertsonak egiten zuten lan, eta beraz azken bi urteetan langile kopuruak %10,6 egin du gora.

Hala, esan daiteke museo-erakundeek batez beste 12,4 langile dituztela. Baina bestetik, kontuan hartu behar da langileen erdia baino gehiago honako 8 entitateetan biltzen dela: Burnibidearen Euskal Museoa, Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Lenbur Lurralde Museoa, Burnibidearen Euskal Museoa, San Telmo Museoa, Eureka! Zientzia Museoa eta Aquarium (ordainduta edo modu boluntarioan lan egiten duten pertsona kopuruaren arabera ordenatuta). Zortzi erakunde hauek 451 langile biltzen dituzte, hau da, museo eta bilduma guztietako langileen %56,8.


Beraz 343 pertsonak (%43,2) gainerako 56 entitateetan egiten dute lan. Zehazki, 26 entitateetan 5-25 pertsonak egiten dute lan (%40,6), eta 25etan 5 pertsonak baino gutxiagok (%39,1). Bost museotan ez dago langilerik (%7,8).

47. irudia. Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

48. irudia. Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (ordainduak eta boluntarioak) (balio absolutuak). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Museo eta bilduma hauetan lan egiten duten 794 pertsonetatik, 643 ordainpekoak dira (%81,0). 15ek ez dute ordainsaririk jasotzen (%1,9) eta 136 boluntarioak dira (%17,1).

Eta ordainsaria jasotzen duten 643 pertsonetatik, 508k lanpostu iraunkorra dute (langile guztien %64,0) eta 135ek aldi baterako enplegua (%17,1).


49. irudia. Museo eta bildumetako langileak, horien lan-harremanaren arabera (balio absolutuak eta %).
2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Ordainpeko langileak soilik kontuan hartuta (643 pertsona), 25 langile baino gehiago dituzten museo eta bildumen kopurua jaisten da (6 museo, %9,4), eta aldiz zertxobait igo langilerik gabekoak (6 museo), eta 5 langile baino gutxiago dituztenenak (26 museo).


50. irudia. Museo eta bildumak soldatapeko langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Beraz, ordainpeko 25 langile baino gehiago dituzten 6 erakunde horietan biltzen da soldatapeko langile guztien %47,0.

51. irudia. Soldatapeko langile gehien dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak).2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.


Erakunde hauetan lan egiten duten pertsona guztien %17,1 borondatezko langileak dira, baina berez, hiru besterik ez dira langile boluntarioak dituzten museoak; Burdinbideko Euskal Museoa, Euskal Herriko Meatzaritza Museoa eta Soinuenea. Herri Musikaren Txokoa.

Eta honako 8 museotan lan egiten dute ordainpekoak ez diren langileak: Museum Cemento Rezola, Medikuntza Historiaren Euskal Museoa, Museo Margarita María. de Berriz al Mundo, Ibarraundi Museoa, Euskal Abertzaletasunaren Museoa, EHUKo Hezkuntzaren Museoa, Luberri Museoa eta Hontza Museoa.

LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA


Erakunde hauetan lan egiten duten 794 pertsonetatik, %78,5ak museoaren jarduerarekin lotutako lanpostuak betetzen ditu eta %21,5ak lanpostu osagarriak eta zeharkakoak, hala nola mantentze-, garbiketa- eta segurtasun-lanak.

52. irudia. Museo eta bildumetako langileak lan-motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

53. irudia. Museo eta bildumetako langileak lanbide-kategoriaren arabera (balio absolutuak eta lanbide-kategoriaren arabeko %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

- Lanbide-kategoria nagusia, lan espezializatuak egiten dituzten langile teknikoena da (kontserbatzaileak, zaharberritzaileak, liburutzaileak, gidak, etab.), erakunde hauetan lan egiten duten pertsonen %43,2k lanbide-kategoria hori baitu.
- Jarraian datoz administrazioko langileak, langileen %29,0.
- Jarduera osagarri eta zeharkakoei lotutako enpleguak, hau da, mantentze-lanetarako langileak, garbitzaileak, segurtasuneko langileak eta bestelakoak langile guztien %21,5 dira.
- Eta azkenik, zuzendaritzako langileak, %6,3.

3. taula Museo eta bildumetako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala) 2022

	Ordaindua / lanpostu iraunkorra	Ordaindua / aldi baterako lanpostua	Ordaindua Guztira	Ordaindu gabea	Boluntarioak	Guztira	Langile kopurua
Zuzendaria	86,0	2,0	88,0	12,0	0,0	100,0	50
Langile espezializatuak	54,8	25,7	80,5	1,5	18,1	100,0	343
Administrazioko langileak	64,3	10,4	74,8	1,7	23,5	100,0	230
Mantentze eta garbiketako langileak	68,3	7,3	75,6	0,0	24,4	100,0	82
Zaintza- eta segurtasun-langileak	70,0	30,0	100,0	0,0	0,0	100,0	50
Bestelako langileak	97,4	2,6	100,0	0,0	0,0	100,0	39
Guztira	64,0	17,0	81,0	1,9	17,1	100,0	794

Oinarria: 64 museo eta bilduma

Lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera museo eta bildumetara atxikitako langileen banaketa aztertuz gero, zenbait desberdintasun ikusten dira.

Lanbide-kategoria guztietan ordainpeko langile dira gehienak, baina zaintza- eta segurtasun-langileen eta bestelako langileen kasuan %100 badira ere, administrazioko langileen eta mantentze eta garbiketako langileen artean %75 inguru dira, eta langile espezializatuen artean, berriz, %80,5. Izan ere, azken hiru kategoria hauetan boluntarioek pisu adierazgarria dute.


Museo eta bildumen %12,0k (6 museok) ez dute ordaindutako zuzendaririk, eta eginkizun hori ordainsaririk gabe betetzen duten pertsonak betetzen dute.

Aldi baterako kontratua duten ordainpeko langileak, batez ere, langile espezializatuak (%25,7) eta zaintza- eta segurtasun-langileak dira (%30,0).

LANGILEEN BANAKETA GENEROAREN ARABERA

Generoari erreparatuz, nabarmentzekoa da emakumeek presentzia handiagoa dutela Euskadiko museo-erakundeen plantillatan: %57,7 dira emakumezkoak, eta gizonezkoak aldiz %42,3.

54. irudia. Museo eta bildumetako langileak, generoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Lanbide-kategoriak generoaren arabera aztertuta, zenbait desberdintasun ikusten dira. Emakumezkoen presentzia altuagoa da langile espezializatuak eta administrazio langileen artean (%59,2 eta %61,7 hurrenez hurren); baita "bestelako langileen" artean ere (%87,2).

Aldiz, mantentze-lanetako eta garbiketako langileen, eta zaintza- eta segurtasun-langileen artean gizonen presentzia nagusi (%58 inguru). Zuzendaritza lanpostuetan, generoak nahikoa orekatuta daude.

55. irudia. Museo eta bildumetako langileak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

LANALDI MOTA

Euskadiko museo eta bildumetan lan egiten duten 794 pertsonen erdiak baino gehiagok, lanaldi osoan egiten du lan (%54,9), baina %45,1k lanaldi partzialean. Zehazki, %14,9k lanaldi erdian edo gehiago egiten du, eta %30,2k lanaldi erdian baino gutxiago.

56. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lanaldi motaren arabera (%). 2022




Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Lan-kategoriaren arabera desberdintasunak ikusten dira: zaintza- eta segurtasun-langileen %86,0k lanaldi osoan egiten du lan, eta baita zuzendarien %78,0k ere.

Aldiz, administrazioko langileen artean, lanaldi osoko enplegua %58,3ra jaisten da, eta teknikari espezializatuen eta mantentze eta garbiketako langileen artean, erdiak baino gehiagok lanaldi partzialean egiten du lan (%53,6k eta %51,2k hurrenez hurren).

57. irudia. Museo eta bildumetako langileak lanaldiaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.


Jarraian, Euskadiko museo eta bildumen finantza-informazioaren azterketa laburra egingo da; zehazki, estatistikaren atal honi erantzun dioten 45 museo eta bildumen diru-sarrera eta finantzazioaren azterketa.

Erantzun duten museo eta bildumen %100ak jasotzen ditu diru-sarrerak sektore publikotik; %75,5ak (34 entitatek) entitatek berak sortutako diru-sarrera propioak ditu (sarrerak, bestelako salmentak) eta %44,4k (20 entitatek) ekarpen pribaturen bat jasotzen du.

Baina museo gehienek finantzaketa-iturri bat baino gehiago dute: erantzun duten 45 museo eta bildumetatik, 35ek bi edo hiru finantzaketa-iturri dituzte (%77,8), eta 10 dira sektore publikotik jasotako diru-sarrerekin soilik finantzatu direnak (%22,2).

Batez beste, Euskadiko museo eta bildumen diru-sarreraren %77,1 sektore publikotik jasotako diru-sarrerak dira; diru-sarrera propioetatik datozenak %16,6 dira, eta ekarpen pribatuak %6,3.


58. irudia. Museo eta bildumen finantzazio-iturriak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 64 museo eta bilduma.

Sektore publikoko dirulaguntzak lau erakundetatik datoz: Europar Batasunetik, Estatuko Administrazio Orokorretik, Eusko Jaurlaritzatik eta toki-administrazioetik. Atal honi erantzun dioten 45 museo eta bildumen finantzaketa-iturri nagusia, toki-administrazioa da (foru aldundiak, udalak...), 38 erakunderi ematen baitiete dirulaguntza (%84,4); jarraian, administrazio autonomikoa (29 entitate, %64,4). Aldiz, gutxi dira Estatuko Administrazio Orokorren edo Europar Batasunaren finantzaketa jasotzen dutenak (%22,2 eta %8,9 hurrenez hurren).


59. irudia. Finantzazio publikoa duten museo eta bildumen erakunde finantzatzaileak (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 45 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Museo eta bildumen diru-sarrera propioak bi iturritatik datoz: bisitariei kobratutako sarreretatik eta beste diru-sarrera gehigarri batzuetatik. Honela, diru-sarrerak propioak dituztela adierazitako entitateetatik (34 museo eta bilduma), %55,0ak diru-sarrerak izan ditu bai sarrerak saltzeagatik, baita bestelako kontzeptuengatik ere (beste salmentak, espazioen alokairua...), %17,6k sarrerak saltzeagatik soilik, eta entitate bakar batek soilik beste kontzeptu batzuegatik.

60. irudia. Museo eta bildumen diru-sarrera propioak (balio absolutuak eta %). 2022




Oinarria: 34 museo eta bilduma.

Kapitulu honetan 2022. urtean Euskadiko museo eta bildumek dituzten funtsak aztertzen dira.

Euskadiko funtsetan, guztira, 1.342.823 unitate kontabilizatu dira, 2020an baino 352.287 pieza gehiago. Hala ere, kontuan izan behar da galdetegia erantzun duten 64 erakundeetatik 6k funtsei buruzko atala hutsik utzi dutela; ondorioz, oinarria 58 museo eta bildumek osatzen dute.

61. irudia. Museo-funtsak, museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2022



Oinarria: 58 museo eta bilduma.

Kontabilizatutako funts guztien %50,8 natur zientzia eta historia unibertsaleko museoetan gordetzen da. Gainerako funts gehienak bestelako museoetan (%16,4) eta museo espezializatueta daude (%15,6). Museo orokorretan funtsen %6,3 gordetzen da, eta zientzia eta teknologia museoetan, etnografia eta antropologiakoetan eta arte ederrekoetan, berriz, %2 inguru.

Ikus daitekeenez, ez dago lotura zuzenik tipologia bakoitzeko museo kopuruaren eta gordetzen dituzten funtsen artean. Izan ere, natur zientzia eta historia unibertsaleko museoak Euskadiko museoek %4,7 diren artean (3 museo), espezializatuak %21,9 dira eta zientzia eta teknologiakoak %14,1.

Ikusgai jarritako funtsen ehunekoa zehaztu duten 54 entitateen %40,7k jendaurrean funtsen %25 baino gutxiago du ikusgai eta %31,5ek funtsen %75 baino gehiago. Nabarmendu behar da jendaurrean funtsen ehuneko altuena duten museo eta bildumak direla objektu gutxien dituztenak. Honela, bildumaren %100 erakusgai duten entitateen funtsak, Euskadiko museo-funtsen %1,6 besterik ez dira (21.153 pieza). Aldiz, bildumarik handiena duen kolekzioak, Arabako Natur Zientzietako Museoak, bere funtsen %1,0 baino ez du erakusten, 6.225 pieza inguru.

2022KO ADIERAZLE NAGUSIAK

- Museoen erregistroan inskribatutako museo eta bilduma guztiek hartu dute parte 2022ko estatistika-txostenean; hau da, parte-hartzea %100ekoa izan da.
- Gipuzkoa da museo-eskaintza handiena duen lurraldea, Euskadiko museo eta bildumen %45,3 Gipuzkoan baitago. Bizkaian dago %39,1a eta Araban, %15,6a. Museo gehien dauden lurraldean, Gipuzkoan, daude sakabanatuen: 29 entitateak 20 udalerritan daude. Bizkaian, 25 entitateetatik 9 Bilbon daude, eta Araban, hamar museoetatik zazpi Gasteizen.
- Museo eta bilduma espezializatuek Euskadiko museo eskaintzaren %22 inguru osatzen dute; jarraian, zientzia eta teknologikoak nabarmentzen dira (%14,1).
- Museo eta bilduma gehienak titulartasun publikokoak dira (%59,4), nagusiki toki-administrazioenak (%81,6). Euskadiko museo-sarearen %35,9 titulartasun pribatukoa da, nagusiki fundazioena (%47,8), eta beren patronatuetan erakunde publikoek eta pribatuek hartzen dute parte.
- Kudeaketa erakunde publikoen (%45,3) eta pribatuen (%45,3) artean banatzen da; kudeaketa publikoko 20 erakunderen kudeaketaz toki-administrazioa arduratzen da (%69,0), eta kudeaketa pribatuko 9 entitateren kudeaketaz berriz, fundazioak (%31,0).
- Museo eta bildumen ia erdia 2000. urtetik aurrera zabaldu zen jendaurrera (%46,9); orotara, batez beste, museoek 29,3 urte daramatzate jendeari irekita.
- Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko aukera ematen duten zerbitzu eta ekipamendu mota ugari dituzte. Euskadiko museo eta bilduma ia guztiek eskaintzen dituzte bisita gidatuak (%98,4), erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa (%95,3) eta bestelako informazioa (liburuxkak...)(%90,6). Zerbitzu-ekipamenduei dagokionez, gehien-gehienek aretoan orientatzeko informazioa eskaintzen dute (panelak, etab.) (%92,2) eta desgaitasuna duten pertsonentzako sarrera egokitua (%84,4).
- Hamar museo-erakundetatik 7k sarrera kobratzen dute (45 museo-%70,3); gainerako %29,7a doakoa da (19 entitate). Baina ohikoa da kolektibo jakin batzuei (taldeei, ikasleei eta adinekoei) tarifa murriztuak edo, are gehiago, doako sarrera eskaintzea (haurrei).
- Euskadiko museoek 2.951.350 bisitari izan dituzte. Bizkaia da bisitari gehien hartu dituen lurralde historikoa, zehazki, bisitari guztien %62,0. Bisitari guztien %55,0 atzerritarrek izan dira.
- Euskadiko museo-sareak burututako bestelako jardueren artean, aipatzekoak dira aldi baterako erakusketak, hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak eta argitalpenen edizioa: erakundeen %79,7k aldi baterako erakusketak antolatu ditu 2022an; %93,8k hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak bideratu ditu eta %81,3k argitalpenen bat egin du.
- Ordaindutako langileak eta boluntarioak kontuan hartuta, Euskadiko museo eta bildumek 794 pertsona enplegatzen dituzte (2020an baino 76 gehiago).
- Batez besteko plantilla 12,41 pertsonakoa da, eta ehunekoetan emakumezkoak gehiago dira (%57,7) batez ere teknikari espezializatuen eta administrazio langileen artean. Ordaindutako 643 langileak soilik kontuan hartuta, azpimarratzekoa da erdia baino zertxobait gutxiago (%47,0) 6 museo-erakundetan biltzen dela.
- Teknikari espezializatuak nagusitzen dira, eta aipagarria da atxikitako langileen lan-egonkortasuna. Batetik, teknikari espezializatuak dira langileen erdia baino gehiago (%55,1). Eta bestetik, Euskadiko museoek atxikitako langile ia guztiak ordainpeko langileak dira (%81,0), eta altua da lan-kontratu iraunkorra duen langileen ehunekoa (%64,0).

- Datu ekonomikoei buruzko atala erantzun duten museo eta bilduma guztiek jasotzen dituzte diru-sarrerak sektore publikotik; %75,0ek (33 entitatek) diru-sarrera propioak ditu (sarrerak, bestelako diru-sarrera gehigarriak), eta museo eta bildumen %45,5ek (20 entitatek) ekarpen pribaturen batetik diru-sarrerak jasotzen ditu.
- Hartara, Euskadiko museo eta bildumen %53,1ek, bi finantzaketa-iturri edo gehiago ditu (diru-sarrera propioak, sektore publikoko diru-sarrerak edota ekarpen pribatuak).
- 2022. urtean, museo eta bildumetan 1.342.823 museo-funts daude guztira; horien erdia (%50,8) natur zientzietako museoetan.

2022KO ESTATISTIKAN PARTE HARTU DUTEN MUSEOAK ETA BILDUMAK.

Araba/Álava

Museoa/Bilduma	Udalerrria	Museo/bilduma mota
Artziniegako Museo Etnografikoa	Artziniega	Etnografia eta Antropologia
Iruñako Oppidumaren Museoa	Iruña Oka	Arkeologikoa
La Hoyako museoa	Laguardia	Arkeologikoa
Arabako Arte Ederren museoa	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Arabako Natur Zientzietako Museoa	Vitoria-Gasteiz	Natur Zientziak eta Historia Unibertsala
Arabako Arma Museoa	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Elizabarrutiko Arte Sakratuaren Museoa. Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Besteak
Euskal Poliziaren Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak
Artium. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Garaikidea
Bibat Arkeologia Fournier de Naipes Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak

Bizkaia

Museo/Bilduma	Udala	Museo/bilduma mota
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa	Abanto Zierbena	Zientzia eta Teknologia
La Encartada Fabrika-Museoa	Balmaseda	Tokikoa
Orkonera-Lutxana Bilduma	Barakaldo	Zientzia eta Teknologia
Arrantzaleen Museoa	Bermeo	Tokikoa
Museo Margarita María. De Berriz al Mundo	Berriz	Espezializatua
Athletic Club Museoa	Bilbao	Historikoa
Euskal Museoa. Museo Vasco	Bilbao	Arqueologikoa
Bilboko Arte Ederren Museoa	Bilbao	Espezializatua
Artelan Berreginen Museoa. Bilbao	Bilbao	Espezializatua
Bizkaiaiko Eleiz Museoa	Bilbao	Arte Ederrak
Itsasmuseum Bilbo	Bilbao	Arte Garaikidea
Euskal Abertzaletasunaren Museoa	Bilbao	Historikoa
Bizkaiko Arkeologi Museoa	Bilbao	Arte Ederrak
Guggenheim Bilbao Museoa	Bilbao	Espezializatua
Antzasti, Euskaldunon Etxea	Dima	Etnografia eta Antropologia
Durango Arte Eta Historia Museoa	Durango	Arte Ederrak
Euskal Herria Museoa	Gernika-Lumo	Orokorra
Gernikako Bakearen Museoa	Gernika-Lumo	Historikoa
Medikuntza Historiaren Euskal Museoa	Leioa	Zientzia eta Teknologia
Hontza Museoa. Museo de Ciencias Naturales	Mañaria	Natur Zientziak eta Historia Unibertsala
El Pobaleko Burdinola	Muskiz	Tokikoa
Orozko Museoa	Orozko	Etnografia eta Antropologia
Rialia-Industriaren Museoa	Portugalete	Zientzia eta Teknologia
Enkarterrietako Museoa	Sopuerta	Historikoa
Simón Bolívar Museoa	Ziortza-Bolibar	Historikoa

Gipuzkoa

Museo/Bilduma	Udala	Museo/bilduma mota
Sagardoetxea, Sagardoaren Etxea	Astigarraga	Besteak
Burnibidearen Euskal Museoa	Azpeitia	Zientzia eta Teknologia
Igartzako Monumentu Maltzoa	Beasain	Etnografia eta Antropologia
Laboratorium Museoa	Bergara	Zientzia eta Teknologia
Euskal Itsas Museoa	Donostia/San Sebastián	Espezializatua
San Telmo Museoa	Donostia/San Sebastián	Orokorra
Aquarium	Donostia/San Sebastián	Zientzia eta Teknologia
Museum Cemento Rezola	Donostia/San Sebastián	Orokorra
Eureka! Zientzia Museoa	Donostia/San Sebastián	Espezializatua
UPV-Ehuko Hezkuntzaren Museoa	Donostia/San Sebastián	Espezializatua
Armagintzaren Museoa	Eibar	Zientzia eta Teknologia
Makina Erremintaren Museoa	Elgoibar	Zientzia eta Teknologia
Ibarraundi Museoa	Eskoriatza	Etnografia eta Antropologia
Igartubeiti Baserri Museoa	Ezkio-Itsaso	Tokikoa
Cristóbal Balenciaga Museoa	Getaria	Espezializatua
Oiasso Erromatar Museoa	Irun	Arkeologikoa
Lenbur Museo Lurraldea	Legazpi	Orokorra
Gatz Ekomuseoa	Leintz-Gatzaga	Espezializatua
Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa	Oiartzun	Espezializatua
Soinuenea. Herri Musikaren Txokoa	Oiartzun	Natur Zientziak eta Historia Unibertsala
Zumalakarregi Museoa	Ormaiztegi	Historikoa
Albaola, Itsas Kultur Faktoria	Pasaia	Espezializatua
Barco Museo Ecoactivo MATER	Pasaia	Besteak
TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	Tolosa	Besteak
Photomuseum	Zarautz	Arkeologikoa
Zarauzko Arte eta Historia Museoa	Zarautz	Espezializatua
Zerain Paisaia Kulturala	Zerain	Etnografia eta Antropologia
Ekainberri	Zestoa	Museo-Etxea
Lili Jauregia	Zestoa	Arkeologikoa

